PEDAGOGIA

Itziar PATERNAIN VALENCIA

MATERIAL DIDAKTIKOA HEZKIDETZA IKUSPUNTU BATETIK: HAURRENTZAKO IPUINEN ANALISIA / *MATERIAL DIDÁCTICO DESDE UNA PERSPECTIVA COEDUCATIVA: ANÁLISIS DE CUENTOS INFANTILES*

GBL/*TFG* 2016-I

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / *Grado en Maestro de Educación Infantil*

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

MATERIAL DIDAKTIKOAK HEZKIDETZA IKUSPUNTU BATETIK: HAURRENTZAKO IPUINEN ANALISIA

Itziar PATERNAIN VALENCIA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante
Itziar PATERNAIN VALENCIA

Izenburua / Título
Material didaktikoak hezkidetza ikuspuntu batetik: haurrentzako ipuinen analisia / Material didáctico desde una perspectiva coeducativa: análisis de cuentos infantiles

Gradu / Grado
Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a
Lucía PELLEJERO GOÑI

Saila / Departamento
Pedagogia saila / Departamento de Pedagogía

Ikasturte akademikoa / Curso académico
2015/2016

Seihilekoa / Semestre
Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: "ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute […] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu".

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagokikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta dizplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluek bidea eman digute atal teorikoa garatzeko, besteak beste. Izan ere, bertan agertzen den ikerketa soziologiko eta

historikoa osatzeko, aipatutako moduluetan eskuratutako gaitasunak beharrezkoak izan dira; informazio fidagarria biltzeko eta ordenatzerako orduan, besteak beste. Halaber, landuko dugun erronkaren egungo egoera ulertzeko, begirada atzera botatzea beharrezkoa denaren kontzientzia sortzen lagundu digute oinarrizko prestakuntzako modulu hauek.

Didaktika eta diziplinako moduluak, bestalde, aurkeztutako ikerketarako erabiliko dugun erraminta sortzeko baliagarriak izan dira; analizatu beharreko materialaren ezaugarriak kontuan hartuta, honek beregain dituen eduki didaktikoak identifikatu eta horietan oinarrituta sortu baitugu behaketarako tresna.

Halaber, Practicum moduluak ikerketari kutsu erreala emateko esparrua zabaldu digu, analisia testuinguru eta egoera erreal batean kokatzeko aukera eskaini digularik.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “SARRERA/INTRODUCCIÓN” eta “ONDORIOAK/CONCLUSIONES” atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Hezkidetza gaur egungo Hezkuntza Sistemaren erronka handietako bat da. Historian zehar kontzeptu hau berdin ulertu ez bada ere, argi dago egun genero-desberdintasunak desagertzea eta emakume eta gizonen aukera- eta eskubide-berdintasuna bermatzea duela helburu (Reizabal, Eldua, & Areizaga, 2015). 1857an Moyano Legea plazaratu zenetik gaur egun arte, indarrean egon diren hezkuntza-legeek erronka honen inguruan arau ezberdinak jarri dituzte martxan. Honekin batera, eskola hezkidetzailea eraikitzeko prozesuan paper garrantzitsua eman zaio material didaktikoaren analisiari, hau sexismoaren transmisoreetako bat baita. Hortaz, hurrengo lanean, azterketa horri ekiteko behaketa-taula bat aurkezten da; kasu honetan, ipuinak perspektiba hezkidetzaile batetik analizatzeko balio duena. Era berean, behaketa-taula hori testuinguru errealean kokatzen diren haurrentzako ipuinetan aplikatu da; ipuin horiek dituzten eduki sexistak identifikatu eta interpretatzeko prozesua ere hurrengo lerroetan jasotzen delarik.

Hitz gakoak: *hezkidetza; material didaktikoa; curriculum ezkutua; haur hezkuntza; haurrentzako ipuinak.*

Resumen

La coeducación es uno de los grandes retos del Sistema Educativo de hoy en día. A pesar de que este concepto no se haya entendido igual a lo largo de la historia, es importante recordar que la coeducación tiene como objetivo hacer desaparecer todo tipo de discriminación sexista, así como garantizar la igualdad de oportunidades y derechos de mujeres y hombres (Reizabal, Eldua, & Areizaga, 2015). Desde la Ley Moyano de 1857 hasta el día de hoy, son muchas las leyes educativas que han estado vigentes; tantas como tratados se han dado a la problemática de género dentro del Sistema Educativo. Asimismo, el análisis de materiales didácticos desde una perspectiva de género ha sido reconocido como pilar fundamental en la construcción de la escuela coeducativa. Por ello, en el siguiente trabajo se presenta una plantilla de análisis para efectuar el mismo, válida para identificar materiales sexistas dentro del aula. Igualmente, este documento recoge una investigación basada en un contexto real; la cual se ha realizado aplicando esa misma plantilla a ciertos cuentos infantiles.

Palabras clave: *coeducación; material didáctico; currículum oculto; educación infantil; cuentos infantiles.*

Abstract

Nowadays, coeducation is one of the big challenges of Education System. Even though this concept has not always mean the same throughout history, it is important to remember that these days, the main objective of coeducation is to remove all kinds of gender discrimination, between it guarantees equal opportunities and rights of men and women (Reizabal, Eldua, & Areizaga, 2015). From the Moyano Law of 1857 until nowadays, there have been so much laws that have regulate gender rules inside the Education System. As well, the analysis of instructional materials from a gender perspective has been transformed in a fundamental pillar of the coeducational school. Therefore, in the present work we introduce an analysis stencil for doing it, being valid for identifying sexist contents inside the school. By the same token, this document picks up an investigation based on a real context; which is done employing the analysis stencil in some children's stories.

Keywords: *coeducation; instructional materials; hidden curriculum; infant education; children's stories.*

Aurkibidea

Sarrera/Introducción **1**

1. Atal teorikoa **5**

1.1. Hezkidetzaren bilakaera XIX. mendearen erdialdetik gaur egun arte 5

1.1.1. Moyano Legea (1857) 5

1.1.2. XX. mendearen hasiera eta frankismoa 6

1.1.3. 1970ko Hezkuntza Lege Orokorra (LGE) 7

1.1.4. Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren Lege Organikoa (LOGSE) 7

1.1.5. Hezkuntzaren Kalitatearen Lege Organikoa (LOCE) 8

1.1.6. Hezkuntza Lege Organikoa (LOE) 9

1.1.7. Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa (LOMCE)..... 10

1.1.8. Hezkidetza gaur egun 12

1.2. Material didaktikoa 14

1.2.1. Eskola: sexismoaren transmisore..... 14

1.2.2. Sexismoaren transmisio-bideak eskolan..... 16

1.2.4. Material didaktikoaren kontzeptualizazioa 18

1.2.5. Material didaktikoen analisia ikuspuntu hezkidetzaile batetik 19

2. Atal praktikoa..... **30**

2.1. Sarrera 30

2.2. Testuingurua 30

2.2.1. San Pedro Ikastetxe Publikoa 30

2.2.2. Ikasgela 32

2.2.3. Analizatuko ditugun ipuinak 33

2.3. Justifikazioa 34

2.4. Helburuak 36

2.5. Hipotesiak.....36

2.6. Metodologia 37

2.7. Datuen bilketa eta interpretazioa 40

2.7.1. Datuen bilketa 40

2.7.2. Datuen interpretazioa 77

Ondorioak / Conclusiones **89**

Erreferentziak..... **92**

Eranskinak **99**

Eranskina I

Eranskina II

Eranskina III

Eranskina IV

SARRERA/INTRODUCCIÓN

El trabajo que exponemos a continuación es el resultado de la unión de dos ideas: por un lado, la especial sensibilización en lo que a la problemática de género se refiere; y por otro, la firme creencia de que la educación es una herramienta indispensable para el cambio social.

En lo que respecta al primero, no hay más que poner la vista en las estadísticas de la Delegación del Gobierno para la Violencia de Género. Según el *Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad* del Gobierno de España, el pasado año 2015, sólo en el Estado Español, fueron 60 las mujeres asesinadas (MSSSI, 2015) a manos de sus parejas o exparejas.

Además de ser un dato, cuanto menos alarmante, los asesinatos no son más que la punta del iceberg de toda violencia contra las mujeres que se ejerce en nuestra sociedad; desde la invisibilización de la mujer, pasando por el uso del lenguaje sexista, hasta el abuso sexual.

La Agencia de Derechos Fundamentales de la Unión Europea (FRA, 2014), por su parte, presentó un informe en 2014 en el que afirmaba que una tercera parte de las ciudadanas de la Unión Europea habían sufrido alguna vez la violencia machista.

Todo esto, no obstante, no puede entenderse sino dentro del sistema patriarcal, el que, a su vez, tiene como pilar el sistema sexo-género. Según este último, "se asocian unos roles y una posición social determinada a mujeres y hombres en función del sexo de pertenencia, determina la construcción de nuestra identidad personal y social y condiciona enormemente nuestros modelos de convivencia y, en general, toda la organización social" (Agirre, 2011, pág. 179).

Asimismo, el género –masculino o femenino – se refiere a un constructo social, el cual recoge diferentes valores, actitudes y comportamientos que la persona, según sea hombre o mujer, irá adquiriendo a lo largo de su proceso de socialización. "El género se convierte así en una categoría social que define las expectativas diferentes que la

sociedad tiene para unas y otros" (Agirre, 2011, pág. 180), puesto que, esta categoría social será determinada en función del sexo de cada persona.

El mismo sistema sexo-género, además de asignar una serie de características determinadas a cada sexo, establece entre ellos una clara jerarquización. De modo que los valores, actitudes y comportamientos masculinos son distinguidamente mejor valorados que los femeninos. Y es aquí, en esta relación vertical de los roles géneros, donde nacen las relaciones discriminatorias de los hombres hacia las mujeres.

A pesar de ello, dado que se trata de una construcción meramente cultural –para nada biológica como se ha argumentado durante años – es susceptible a ser analizada, cuestionada, criticada e incluso derogada. Es precisamente en este momento, donde cabe recordar el segundo punto presentado a principios de este apartado: la educación es una herramienta indispensable para el cambio social.

Con el firme compromiso de reducir al completo tanto los datos presentados antes (MSSSI, 2015) como el resto de datos que quedan en la sombra sobre discriminación de género y violencia contra las mujeres, es necesario hacer hincapié en el poder que tiene la educación para hacer frente a este tipo de problemáticas. Como afirmaba Paulo Freire: "La educación no cambia el mundo, cambia a las personas que van a cambiar el mundo".

La escuela, como agente socializador que es (Vizcaíno, 2010), tiene una gran influencia en la reproducción tanto del sistema sexo-género como del sistema heteropatriarcal al completo, y, a pesar de no tener capacidad de modificarlo, su capacidad de intervención es muy importante (Agirre, 2011).

De hecho, es la propia escuela la que –explícita o implícitamente – transmite los valores, actitudes y comportamientos más arraigados de la sociedad. Por lo tanto, no cabe duda que el sexismo, como otro sesgo más en nuestra cultura, también es reproducido y alimentado por el propio sistema escolar.

No obstante, al igual que es capaz de transmitir la cultura hegemónica de la sociedad en la que se encuentra, la educación también cumple con la posibilidad de hacer visibles todos esos roles y estereotipos asignados, entre otros, al propio sexo. Del mismo modo,

a la par de hacerlos visibles, la escuela tiene la capacidad de educar personas críticas y sensibles respecto a la problemática de género, dando así pasos hacia adelante en la construcción de una sociedad justa e igualitaria para todas las personas.

Por consiguiente, y tomando como partida los antecedentes aquí recogidos, el presente Trabajo de Fin de Grado tratará de aunar los dos temas –educación y género – con el único fin de poder aportar una herramienta para identificar el sexismo y, por tanto, visibilizar el contenido sexista que se transmite dentro del aula. Esta herramienta, sin embargo, está adecuada para analizar la transmisión del sistema sexo-género en materiales didácticos explícitos: los cuentos infantiles.

1. ATAL TEORIKOA

Lehenik eta behin, eta lan honen tituluari helduta, bertan azaltzen diren bi kontzeptu nagusiei egingo diegu erreferentzia; hots, hezkidetza eta material didaktiko kontzeptuei. Horien kontzeptualizazioari zein azkeneko berrogei urteetatik honat jasan duten eboluzioaren inguruan arituko gara. Hezkidetzari begira, historian izan duen presentzia eta garrantzia aztertuko dugu, hauek ezagutu eta ulertzea ezinbestekoa izango baita ondoren aurrera eramango dugun analisiak koherentzia izan dezan. Material didaktikoen kasuan, ordea, horien inguruko oinarrizko nozioak argitu eta historian zehar ikuspuntu hezkidetzailetik egin zaizkien ikerketak aipatu eta aztertuko dira, arlo praktikoan gauzatuko den analisirako gida izango direlarik.

1.1. Hezkidetzaren bilakaera XIX. mendearen erdialdetik gaur egun arte

Hezkidetzari dagokionez, alde batetik, garrantzitsua iruditzen zaigu bai honen definizio zein garapen historikoari erreparatzea. Izan ere, gaur egun hezkidetza sexuen arteko aukera-berdintasuna bermatzen duen hezkuntzatzat hartzen bada ere, bi sexuen hezkuntzarako sarbide-aukera berdintasunarekin konfunditu izan da (Red2Red Consultores SL, 2007). Aurrerago zehatzago aztertuko dugun bezala, beraz; etapa historiko guztietan hezkidetza hitzak ez dio hezkuntza eredu berari erreferentzia egin (Martori, 1994). Garapen hau ulertzeko, ordea, ezinbestekoa da historian atzera egitea. Izan ere, Carlyle-k zioen bezala: “El presente es la viviente suma total del pasado.” (Carlyle, 1843, or. 268)

1.1.1. Moyano Legea (1857)

1857. urtean indarrean jarri zen Moyano Legea izan zen emakumeen derrigorrezko hezkuntza lehenengo aldiz arautu zuena. Honek hezkuntza derrigorrezkoa egin zuen 6 eta 9 urte artean zeuden neska-mutil guztientzako (Del Amo, 2009). Are gehiago, 500 biztanle baino gehiagoko herrietan neskentzako eskolak eraikitzea derrigortu zuen lege honek. Era berean, emakumeei oinarrizko heziketarako eskubidea aitortu zuen (Scanlon, 1987).

Hala ere, bai neska eta bai mutilek jasotzen zuten curriculumen artean erabateko aldea zegoen, eduki guztiz ezberdinak lantzen baitziren. Horrela baieztatzen dute nesken

curriculumaren inguruan aritzen diren Aristizabalen hitzek: “Curriculumaren ordu gehienak, “Etxeko Lanek” (edo “labores” direlakoak) eta Etxeko Ekonomiak beteko dituzte, emakumezko irakasleek irakatsita. Gramatika, Idazketa, Irakurketa, Aritmetika eta Geografia eta Historia bezalako ikasgaiak, berriz, gizonezko irakasleek bakarrik ematen zituzten.” (Aristizabal, et al., 2015, or. 119). Honen ondorioz, emakumeek hezkuntzarako sarbide eskubidea bazuten ere, gizon eta emakumeen arteko diskriminazioa indartu eta erreproduzitu besterik ez zuen egiten eskolak. Izan ere, emakumearen formakuntza ama, emazte eta alaba zintzoa izatera zuzenduta zegoen (González T. , 2004).

Hala ere, baiezta dezakegu Moyano Legeak espainiar estatuko hezkuntzaren errealitatea aldatu zuela, oinarrizko hezkuntzan bederen. XIX. mendean zehar, ordea, bai bigarren baita goi-mailako hezkuntzan ere sartzeko zailtasun handiak izaten jarraitu zuten espainiar emakumeek. Areago, XX. mendeko lehenengo hamarkada arte, emakumeek ez zuten batxilergora zein unibertsitatera sartzeko aukerarik izan (González T. , 2010).

1.1.2. XX. mendearen hasiera eta frankismoa

Hamarkada berean, 1909. urtean zehazki, hezkuntza mixtoa arautu zuen urriaren 26ko Dekreto Erreala ezarri zen. Honek lehen hezkuntza publikoan hezkuntza mixtoa ezarri bazuen ere, sektore progresistenek bakarrik eraman zuten aurrera. *Hezkidetza* izena eman zioten aurrerapauso honi, nahiz eta gaur egungo kontzeptualizazioarekin zerikusirik ez duen; garai horretan definitu zen *hezkidetza* gaur egungo “eskola mixtoa”-ri baitagokio. Bigarren Errepublikan hezkidetzaren orduko ideia ezinbestekotzat hartzen zen emakumearen gutxiagotasunarekin amaitzeko; gizonen moduan hezitzeaz gain, gizonekin hezi behar baitziren emakumeak (Urruzola, 1995). Horrekin batera, gainera, 1931ko Konstituzioak emakume eta gizonen arteko berdintasuna baieztatu zuen (Rodríguez, 2015) .

Hala edo nola eskola mixtoak espainiar estatuan argia ikusi bazuen ere, diktadura frankistaren etorrerarekin erabat abolitu zen, Mugimendu Nazionaleko printzipioen aurkako sistema zela argudiatuta: 1936. urtean hainbat zonaldetan, eta 1939an, hain zuzen, lurralde osora orokortu zen hezkuntza eredu berriaren desagerpena (González, 2010). Hortaz, lehen eta bigarren hezkuntzetan debekatu zen neska eta mutilen

baterako eskola, berriro ere estatuaren hezkuntzari buruzko erabaki gehienak elizaren esku utziz (Martori, 1994).

1.1.3. 1970ko Hezkuntza Lege Orokorra (LGE)

1970eko Hezkuntza Lege Orokorra indarrean jarri arte, eskola segregatzailea indartzen zuten legeak ezarri ziren –1945eko "Ley de Enseñanza Primaria", kasu –. XX. mendeko hirurogeiko hamarkadaren amaieran, Espainia frankistak eboluzionatu eta herrialdearen maila kulturalaren inguruan interesa piztu zitzaion. Helburu ekonomikoak buruan zeudela, hezkuntza sistemaren berrikuntza planteatu zen, gizarte modernoa eraikitzeko eskulan kualifikatua beharrezkoa ikusten baitzen (González T. , 2010).

Lege berri honek hezkidetzaren historian aurrerapauso garrantzitsua ekarri zuen. Izan ere, ordurako tradizio frankista zen sexu-araberako segregazioarekin amaitzeaz gain, hezkuntza munduan emakume eta gizonen aukera-berdintasuna onartu zuen. Beraz, eskola mixtoa ezarri zen Espainian, non neska-mutilek curriculum bera landuko zuten, irakaslego berarekin baita espazio berean ere. Era berean, eskolatzea 14 urte bete arte derrigorrezkoa egin zen (Del Amo, 2009).

Hala ere, hezkidetza, oraindik ere, ez zen garaiko debate pedagogikoen hizpide izan. Neska eta mutilen tratamendua berdina zela segurutzat jo zen, bi sexuek programa bera jasotzen hasi baitziren (Martori, 1994). Hezkuntza praktikaren zenbait ikerketa feministek, ordea, eskola mixtoak parekotasun ezarekin amaitzea lortzen ez zuela baieztatu zuten. Eskola berdintasun ezaren sortzaile ez bazen ere, hura legitimatzeko eta naturalizatzeko jarrerak bultzatzen zituen; hizkuntzaren sexismoari eta androzentrismo zientifikoari esker. "El orden masculino es dominante, mientras que el modelo femenino tradicional no tiene cabida" (Del Amo, 2009, or. 19), 1970eko LGE legearekin emakumeak gizonen curriculumera batu besterik egin ez baitziren, eta ez, ordea, bi sexuen errealitateak kontuan hartzen zituen curriculum berri bati lotu (Ballarín, 2004).

1.1.4. Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren Lege Organikoa (LOGSE)

1990. urtean, berriz, Espainiako PSOEren Gobernuak LOGSE legea jarri zuen martxan. Hau izan zen espainiar legerian sexuen arteko diskriminazioa onartu zuen lehenengo legea. Ildo berean, gainera, elkarbizitza demokratikoa bultzatuko zituzten hainbat

baloreen zeharkako lanketa proposatzen zuen, haien artean berdintasuna agertzen zelarik (Ballarín, 2004). Hezkuntza Sistemak du, hain zuzen ere, parekotasun ezen aurrean borrokatzeko giltza:

> "La educación permite en fin, avanzar en la lucha contra la discriminación y la desigualdad, sean éstas por razón de nacimiento, raza, sexo, religión u opinión, tengan un origen familiar o social, se arrastren tradicionalmente o aparezcan continuamente con la dinámica de la sociedad." (LOGSE, 1990, hitzaurrea)

Horrez gain, beherago sakonago landuko ditugun material didaktikoen analisiari aipamen berezia egin zion LOGSEk 57. artikuluan:

> "3. En la elaboración de tales materiales didácticos se propiciará la superación de todo tipo de estereotipos discriminatorios, subrayándose la igualdad de derechos entre los sexos." (LOGSE, 1990, Tit. IV, art. 57)

90eko hamarkada honetan zehar, eta Hezkuntza Ministeritzaren eta Emakumearen Institutuaren elkarlanaren ondorioz, hezkidetzaren inguruko hainbat ikerketa eta material didaktiko sortu ziren (Del Amo, 2009).Honi esker, hezkidetzaren problematika mahai gainean jarri zen, horren inguruan lan egiteko beharra agerian geratzen baitzen.

1.1.5. Hezkuntzaren Kalitatearen Lege Organikoa (LOCE)

2002. urtean, ordea, *Ley Orgánica de la Calidad de Educación* (LOCE) legea onartu zen parlamentuan, PPko gobernua indarrean zegoelarik. Honek LOGSEk planteatutako eta diskriminazioei aurre egiteko beharrezkoa zen eskuhartze printzipioa deuseztatzen du (Ballarín, 2004). Gainera, testuan agertzen den hizkuntzari dagokionez, emakumea erabat baztertzen duen genero maskulinoa erabiltzen du uneoro (González T. , 2010); hala nola, "alumnos", "profesores" eta "ciudadanos" hitzak erabiltzen ditu (LOCE, 2002, Atariko Titulua, art. 1).

Ildo berean, dokumentu osoan zehar behin bakarrik aipatzen du sexuen arteko eskubide-berdintasuna, bertatik kanpo utziz aukera-berdintasuna, sexismoaren problematika edota hezkidetza bezalako kontzeptualizazioak. Hona lantzen ari garen gaiaren inguruan legeak egiten duen aipamen esplizitu bakarra:

> “b) La capacidad de transmitir valores que favorezcan la libertad personal, la responsabilidad social, la cohesión y mejora de las sociedades, y la igualdad de derechos entre los sexos, que ayuden a superar cualquier tipo de discriminación, así como la práctica de la solidaridad, mediante el impulso a la participación cívica de los alumnos en actividades de voluntariado.” (LOCE, 2002, Atariko Titulua, art. 1)

Gainera, lege honek genero estereotipoek baldintzatutako erabaki profesionalak indartzen ditu, arlo honen inguruko zenbait erabaki oso adin goiztiarretan gauzatzea arautzen baitu (Rodríguez, 2015). Ezberdintasunekin ez ikusiarena egiteak, baita huen existentzia ez onartzeak ere, hortaz, fenomeno hauen mantentzea dakar (Ballarín, 2004).

Problematikaren aipamen eta eskuhartzeko proposamen ezak, beraz, LOGSEk gainditutakoa ukatu eta hezkidetzaren historian nolabaiteko atzerapausoa ekarri zuen. Izan ere, dokumentuan aipu ez egiteagatik, sexuen araberako segregazioa baimentzen du eskoletan, baita kausa beragatik sortzen ahal diren diskriminazioak ere (Ballarín, 2004).

1.1.6. Hezkuntza Lege Organikoa (LOE)

2004ko martxoko hauteskundeez geroztik, PP indarretik kendu eta PSOE jarri zen Espainiako Gobernuko mandatari. Herrialdeko mapa politikoa aldatu eta hezkuntza arloan sentsibilizazio eta interbentzio neurriei bultzada handia eman zien. Prozesu horretan, abenduko *Ley Orgánica de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género* eraman zuten aurrera. Honek berdintasunerako hezkuntzan jartzen du arreta, baita material didaktikoetatik estereotipo sexistak kentzean ere (González T. , 2010).

> “Artículo 6. *Fomento de la igualdad*.
>
> Con el fin de garantizar la efectiva igualdad entre hombres y mujeres, las Administraciones educativas velarán para que en todos los materiales educativos se eliminen los estereotipos sexistas o discriminatorios y para que fomenten el igual valor de hombres y mujeres.” (LOMPICVG, Tit. I, art. 6)

2006. urtean, bestalde, *Ley Orgánica de Educación (LOE)* delako legea jarri zuen indarrean PSOEko gobernuak. LOEk hezkuntza sistemaren egonkortasuna zuen helburu, eta horretarako beharrezkoak ziren adostasun politikoak lortzen saiatu zen. Hala ere, eta adostasun horiek lortu ez bazituen ere, esan beharra dago hainbat erakunderen arteko hitzarmenak eman zirela (Puelles, 2008).

Gainera, LOEk hezkidetzaren inguruan hartutako politikak LOCE eta LOGSE legeak berak baino askoz sakonagoak eta aurrerakoiagoak dira; hala nola, 23. artikuluan zehazten den hurrengo helburua:

> "c) Valorar y respetar la diferencia de sexos y la igualdad de derechos y oportunidades entre ellos. Rechazar los estereotipos que supongan discriminación entre hombres y mujeres." (LOE, 2006, Tit. I, art. 26)

Are gehiago, *hiritartasuna* izeneko ikasgai bat ezarri zuen DBHko lehen hiru ikasturteetatik batean, bederen:

> "En uno de los tres primeros cursos todos los alumnos cursarán la materia de educación para la ciudadanía y los derechos humanos en la que se prestará especial atención a la igualdad entre hombres y mujeres." (LOE, 2006, Tit. !, art. 23)

Lege honek berdintasuna, kalitatea, aniztasuna, demokrazia, hiritartasuna eta ezparekotasunen konpentsazioaren alde egin zuen apustu, besteak beste. Dena den, kultura femeninoaren, transbertsalitatearen eta emakumearen presentziaren inguruan asko du oraindik hobetzeko. Areago, hezkuntza eredu maskulinoa normalizatzearen ondorioz, segregazioa mantendu egiten da. (González T. , 2010)

1.1.7. Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa (LOMCE)

2011. urtean PPk Espainiako Gobernua hartu ondoren, bertako hezkuntzako ministroa zen Wert jaunak LOMCE legea aurkeztu zuen, beste talde parlamentarioen inolako babesik gabe. 2013ko azaroan onartu zen 2006ko LOE erreformatu zuen lege berria, berarekin batera hezkuntzaren inguruko hausnarketa eta kritika ugari ekarriz.

Guri dagokigun etapak –Haur Hezkuntzak, hain zuzen – aldaketak jaso ez bazituen ere, interesgarria iruditzen zaigu gainontzeko mailek pairatu izan dituzten aldaketak

azaltzea. Izan ere, hezkidetzaren inguruan, besteak beste, ematen den tratamenduan eragin handia izan zuen. Bi izan ziren gehien eztabaidatutako erreformak: alde batetik, *Hiritartasunerako hezkuntza* ikasgaiaren ezabapena arautu zuela, genero-ekitatearen inguruko berariazko edukiak lantzen zituen ikasgai bakarra; eta bestetik, sexu bakarreko eskolei bultzada garrantzitsua eman ziela, hauek fondo publikoekin finantziatzea legalizatuz (Fernández & González, 2015).

Are gehiago, sexuaren arabera bereizita dauden eskolak diskriminatzen ez duenaren ideia baieztatzen du legeak, linboan utziz genero berdintasunaren erronka neska eta mutilek bereizita lantzen ahal den (Fernández & González, 2015).

> "Ez da diskriminaziotzat joko ikasleak onartzean edo irakaskuntza antolatzean sexuaren araberako bereizketak egitea, betiere ematen den irakaskuntza Irakaskuntzaren arloko Diskriminazioen Aurkako Borrokari buruzko Konbentzioaren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz garatzen bada (UNESCOren Biltzar Orokorrak 1960ko abenduaren 14an onartua). Sexuaren arabera bereizitako hezkuntza hautatzeagatik, familiei, ikasleei eta ikastetxeei ez zaie inola ere emango tratu okerragorik, ezta desabantailarik ere, hezkuntza-administrazioekin hitzarmenak izenpetzean edo beste edozein alderditan. Ondorio horietarako, ikastetxeek sistema hori hautatzeko hezkuntza arrazoiak azaldu beharko dituzte hezkuntza-proiektuan, baita berdintasuna bultzatzeko garatuko dituzten neurri akademikoak ere.»" (LOMCE, 2013, Tit. XV, art. 61)

Dena den, aipatutako azken erreforma horrekin nahiko koherentzia gutxi antzematen ahal zaion hurrengo paragrafoa aurkitzen dugu LOMCE legean:

> "Hezkuntza-sistema kalitatezkoa, inklusiboa, integratzailea eta zorrotza denean bakarrik bermatzen da aukera-berdintasuna, eta bidea ematen du ikasle guztiek euren gaitasunak erabat garatzeko. Kalitatea oinarri hartuta bakarrik bete daiteke Espainiako Konstituzioaren 27.2 artikuluak ezartzen duena: «Giza nortasuna oso-osorik garatzea da hezkuntzaren helburua, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak eta oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatuz»." (LOMCE, 2013, Hitzaurrea I)

Edo apur bat aurrerago agertzen den beste paragrafo honetan ere:

> "Zuzentasuna eta kalitatea txanpon beraren bi aldeak dira. Hezkuntza-sistema bat kalitatezkoa izango bada, lehentasunezkoa da desberdintasun zantzu oro, txikia izanagatik, ezabatzea. Ez dago ekitate falta handiagorik utzikeria- eta kaskarkeria-mailak berdintzen dituen sistema batena baino. Espainiako gizartearentzat ez da nahikoa eskolatzea hezkuntzarako eskubidea baliatzeko; kalitatea ere hezkuntzarako eskubidearen osagaia da." (LOMCE, 2013, Hitzaurrea III)

Argi dago, beraz, indarrean dagoen ideologiaren arabera, hezkidetzaren tratamendu bat edo beste emango dela eskolan. LOMCE legeak aurretik emandako pausu asko deuseztatu eta genero berdintasunaren erronkan atzerapausoak eman direla baiezta dezakegu; 2004ko *Ley Orgánica de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género* legean zehazten ziren kontzientziazio lanak, besteak beste, lehentasunetatik erabat baztertuz.

1.1.8. Hezkidetza gaur egun

Historian zehar, eta azken urteotan batez ere, eskolak izan duen ibilbideari erreparatuta, argi eta garbi baiezta dezakegu hezkidetzaren kontzeptualizazioa guztiz aldatu dela, baita horri eskolan ematen zaion tratamendua ere. Aurretik aipatu dugun bezala, hezkidetza eskola mixtoaren ideia hutsetik, sexuen arteko aukera-berdintasuna sustatzen duen hezkuntzara igaro da. Horretan, hain zuzen ere, testuinguratzen ahal dugu gure gaur egungo eskola. Diz eta Fernández-ek (2015) aipatzen duten Bonalek (1997) hiru eskola ereduak konparatzen dituen taula bat sortu zuen, *Taula 1*ean irudikatuta agertzen dena (Diz & Fernández, 2015, or. 117):

Taula 1. Hiru eskola ereduen konparaketa

	ROL BEREIZIAK	**ESKOLA MIXTOA**	**ESKOLA HEZKIDETZAILEA**
Baloreak	- Rol sexualari loturiko hezkuntza. - Generoen esleipena. - Talde sexual bakoitzaren gizarteratzea, esparru publiko eta pribatuan,	- Hezkuntza bera guztientzako. - Aukera-berdintasuna. - Gaitasun pertsonalen garapena. - Produkziorako eskola. - Indarkeriarik gabeko printzipioa	- Eskola estereotipo sexualen bazterketa gidatzeko instituzioa. - Generoen arteko hierarkiaren ezabapena.

Arauak	- Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren bereizketa fisikoa. - Curriculum eta pedagogia ezberdinak. - Genero urratzaileen aurrean instituzioen erantzun esplizitua	- Hezkuntza prozesuaren indibidualizazioa. - Baliabideen esleitze- eta banatze-berdintasuna. - Generoen gailentasun eza. - Erabakitze-askatasuna.	- Talde bakoitzaren beharrei arreta. - Aniztasun kulturalari arreta. - Parekotasun ezaren aurrean kontrola.
Legitimazioak	- Maskulinoaren gailentasunean sinistea. - Rol sexual bereiztuak behar sozial moduan.	- Gizarte meritokratikoa. - Eskola herraminta neutro gisa. - Banakoen berdintasuna, ez taldekoa. - Kulturaren homogeneitatea.	- Eskola ezparekotasun sozial eta kulturalen erantzule. - Eskola uniformetasun kulturalaren instituzio gisa.
Ezagutza enpirikoa	- Ez du garrantzirik. - Argudio moralak, ez arrazionalak	- Psikologiko eta pedagogikoa. - Eskola mixtoaren ondorio positiboak gizarteratze prozesuan.	- Soziologikoa. - Diskriminazio sexistena. - Talde sexual bakoitzaren berariazkotasunena.

Dena den, argi dago eskola hezkidetzailea lortzeko bidean gauden arren, oraindik ere lan asko dugula egiteko. Areago, aurrera egin ahala ziurrenik erronka berriak agertuko dira. Izan ere, eskolaren analisi historiko laburrarekin ondorioztatu bezala, hezkidetza lekuan lekuko egoeraren desafioei moldatzeko eta bizi den errealitateari aurre egiteko gai da.

Gaur egun, beraz, zera da eskola hezkidetzailearen erronka:

> "(…) hezkuntza-ikuspegi horren helburua genero-desberdintasunak etengabe desagertzea baita, eta ez eskolako egitura formalean bakarrik, baita hezkuntzaren ideologian eta jardunean ere. Gizonezkoen kulturaren eta emakumezkoen kulturaren alde positiboak berreskuratu nahi dira, eta era dikotomikoan genero bakar bati lotuta ez dauden jokabide-erreferente bihurtu, neska eta mutilen giza garapena bultzatzeko, eta identitate pertsonala duten subjektuak direla onartzeko, estereotipoak alde batera utzita." (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila, 2013, or. 10)

Horren ildoan, beraz, hezkidetza ez datza eskolan praktika diskriminatzaileak ekiditean soilik, baizik eta, horrez gain, erreala den aukera-berdintasuna ziurtatu eta bultzatzean ere (De la Peña, 2007).

Horretarako, bestalde, indarrean ditugun legeek gaiaren inguruan zehazten dutena aztertzeaz gain, ezinbestekoa da egungo eskoletan hezkidetzaren inguruan egiten den edo egiten ez den irakurketa, lanketa eta batez ere tratamenduari erreparatzea. Legeek esaten dutena esaten dutela ere, argi dago praktikara jo behar dugula gaur egun hezkidetzak duen presentzia neurtzeko garaian. Horretarako, beraz, beharrezkoa zaigu irakasleen formakuntza, erabiltzen den material didaktikoa zein tresna ezberdinen bidez transmititzen diren baloreak aztertzea.

1.2. Material didaktikoa

1.2.1. Eskola: sexismoaren transmisore

Garrantzitsua da gogoratzea eskola funtzio anitzeko instituzioa dela, eta betetzen dituen betebeharretako bat, alabaina pertsonak gizarteratzea da (Vizcaíno, 2010). Are gehiago, eskolak muturrean dauden bi funtzio ditu: alde batetik, indarrean dagoen gizarte-antolamendua erreproduzitzeko lana du; eta bestalde, antolamendu hori hobetzeko ahaleginak egin behar ditu. Hau da, eskola iragan zein etorkizunerat bideratuta dago. Izan ere, eskolaren funtzioa ez da bakarrik iragana mantentzea, baizik eta etorkizuna eraikitzea ere (De Luca, 2002).

Dena den, lan honetarako interesatzen zaigun alderdia bi horietako lehenengoa da; hots, mendebaleko gizarteak eskola transmisiorako erraminta moduan erabiltzen duela (Ruiz & Vallejo, 1999). Honi esker, indarrean dagoen kulturaren balore, arau, jarrera, jokabide eta trebeziak gazteengan eraikitzeko funtzioa egokitzen zaio eskolari, besteak beste, testuinguru politiko eta ekonomikoarekin koherentzia mantenduz (Vizcaíno, 2010). Ruiz eta Vallejok (1999) baieztatzen duten moduan: “La estandarización tiene como objetivo funcional el de socializar a las nuevas generaciones en consonancia con los modelos dominantes” (Ruiz & Vallejo, 1999, or. 125)

Eskolan elkarri eragiten dioten neska eta mutilek, baita irakasleekin ere, eguneroko bizitza arautzen duten errutinen ondorioz ikasle izaten ikasten dute; ikasle emakumea

ala ikasle gizona. Gutxika ikaslegoa arau eta eduki ezberdinak barneratzen joango da; hala nola, baimendutako jokaerak, debekatutakoak eta zein momentutan, baita eskola barruan dagoen bitartean harremanatzen den objektu, hitz eta gertakizunek zernolako esanahia hartu behar duten ere (Torres, 1998). Hau guztia, aurrerago sakonago aztertuko dugun *curriculum ezkutua* (Torres, 1998) kontzeptuarekin zerikusia du.

Azken ideia hauekin batera, Paulo Freireren hitzak gogora etortzen zaizkigu: "Nadie educa a nadie, nadie se educa a sí mismo; los hombres se educan entre sí, mediatizados por el mundo" (Freire, 2009, or. 61). Izan ere, argi dago gizartean indarrean dauden ideologiek sekulako eragina dutela eskolan ematen diren edukiengan; aurreko atalean azaldutako LOMCE legea kasu, 2013an egindako erreforma. Honen ondorioz gizartean presentzia izugarria izan eta oraindik duen sexismoa, besteak beste, erreproduzitu eta hura baimentzera heldu da eskola.

Izan ere, herritar eta langile moduan gizarteratzeaz gain, eskolak gizon ala emakume moduan hezitzen ditu haur eta gazteak (Vizcaíno, 2010); aurretik aztertutako hezkidetzaren historian ondorioztatu bezala, sexismoa haien artean hedatuz. Esan bezala, eskola familia, komunikabide eta bestelakoen hainako agente gizarteratzailea da, sexismoa eta jarrera sexistak erreproduzitzen laguntzen jarraitzen duena. Izan ere, oso urruti gaude oraindik sexismoa gainditzen duen eskola hezkidetzailetik (Urruzola, 2003).

Areago, gure gizartean jarduten duten sexismoen artean, Llum Pellicerrek (2009) sexismo instituzionalizatuari dagokion talde bat sailkatzen du bere lanean, eskola bezalako eragileak barne hartzen dituena:

> "**Sexismo instituzionalizatua:** pertsonen artean ez ezik, instituzio eta gizarteratze-arlo guztietan ere adierazten dira sexismoa eta matxismoa: familia, eskola, komunikabideak, elizak, lana, erkidegoa… Bertan, ideia sexistak berregiten dira, emakumeak ezkutuan daude eta gizonak baino beheragoko mailan daude. Esate baterako, emakumeak barik enpresek gizonak kontratatzen dituztenean, gizonek hainbeste familia-erantzukizun ez dituztelakoan." (Pellicer, 2009, or. 37)

Horrez gain, autore berak (Pellicer, 2009) “Barneratutako sexismoa” taldean sailkatzen duenak ere arreta deitu digu. Izan ere, sexismoa kanpotik inposatzen bada ere, “oso barneratuta dugu, gure kontzientzian, buruan zein bihotzean eta horrelaxe jartzen gara harremanetan besteekin (…) egoera sexista horiek guztiak pertsonen artean hain sustraituta daudenez, oharkabean igarotzen dira eta “naturaltzat” hartzen dira” (Pellicer, 2009, or. 37). Ideia hau irakasle eta ikasleen, zein eskolako komunitate osoaren errealitatean aplika daiteke, denbora guztian etengabeko elkarreraginean daudenak. Hori dela eta, errealitate hori aldatzeko asmoz, ezinbestekoa da hezkuntza ez-sexista sustatu eta hezkuntza-esparru guztietako gizarte-eragile guztiak sentsibilizatu eta prestatzea.

Gogoratzekoa da, hain zuzen, estereotipo hauekin eta genero identitateen eraikuntzan aritzen diren elementuen produkzio eta erreprodukzioarekin amaitzeko asmoz agertzen dela hezkidetzaren kontzeptua (Fernández & González, 2015). Ildo berean, garrantzitsua da nabarmentzea eskola hezkidetzailean aurrera egiteko hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa ezinbestekoa dela; irakasle, guraso, langile zein ikasleena. Horretarako, alabaina hezkuntza instituzio ezberdinen elkarlana funtsezkoa da (López, Madrid, Encabo, & Moreno, 2005-2006).

1.2.2. Sexismoaren transmisio-bideak eskolan

Gizartean ardatz diren baloreen eta oinarrian dagoen antolaketa mantentzeko transmisio bide anitzek hartzen dute parte eskolan, estimulu ezberdinez elikatzen baitira ikasleak; hala nola, irakasle, ikaskide, liburu, helduen eredu, eskolako jardunaren antolaketa eta metodologiek eragina dute ikasleen heziketa-prozesuan. Ezagutzarekiko eta errealitatearekiko erlazioak irakasten dira eskolan, baita pertsonen arteko harreman ereduak ere. Norberaren inguruko ideiak, norberaren lekua eta papera gizartean, norberaren inguruko itxaropen eta igurikapenak, eta gaitasunak ere ikasten dira eskolan (De Luca, 2002).

Horrez gain, instituzio honetan jorratzen den balore-hezkuntzak, irakasten den zientziak, egiten den espazioaren erabilerak baita dekorazioak ere, hizkuntzak, hezkuntza materialak, denborak, baliabide ekonomikoen kudeaketak, ardura duten postuen banaketak eta eskolaren antolaketak ere, besteak beste, parte hartzen dute

sexismoaren transmisioan (Urruzola, 2003). Baita formalagoak diren proiektu kurrikularrak, irakaskuntza-edukiak, material didaktikoak, eskola eta institutuen antolaketa ereduak, zein irakasle eta ikasleen jarrerak ere garrantzitsuak izan dira honetan (Torres, 1998). Izan ere, hauek ez dira gizarteko beste dimentsioetan ematen diren ideologia eta fenomenoetatik bereizita dauden elementu neutro ezta teknikoak ere (Torres, 1995).

Aipatutako hauek guztiak curriculum ezkutuaren barruan uler daitezke, hain zuzen ere. Kontzeptu hau Jacksonek erabili zuen lehenengo aldiz 1968an. Curriculum arruntaren zenbait dimentsioei erreferentzia egiteko erabili zuen, orokorrean hezkuntzaren munduko profesionalek kontuan hartzen ez zituztenak. Curriculum ezkutua ez da, beraz, curriculum barruan ezkutatzen den programazioa, baizik eta horren osagarri bat, bistakoa ez dena (Nieto, 1991).

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan eskuratzen diren ezagutza, balore, jarrera eta arauei erreferentzia egiten diena da curriculum ezkutua. Honekin batera, egunerokotasunean eskolan ematen diren elkarreraginak ere daude, hezkuntza-helburu moduan esplizitatzen ez direnak; ez baitira modu intentzionalean landu nahi (Torres, 1998).

Argi dago, beraz, eskolak, edo hezkuntza sistemak, estrategia eta tresna ezberdinak erabili izan dituela sexismoa mendez mende eta belaunaldiz belaunaldi transmititzeko, kontziente edo inkontzienteki. Beraz, kontuan izan behar dugu eskolan jorratzen direnek, baita horiek jorratzeko moduek ere eragin izugarria dutela sexismoaren transmisioan.

Horregatik, hain zuzen, badira eskolan ematen den sexismoaren iragartze horren inguruko analisiak egiten dituztenak; hezkuntza programazioen genero-omisioan, testuen zeihartasun sexistan, genero estereotipoen transmisio kulturalean edota curriculum ezkutuaren bidez ematen diren sexu-rolen definizioetan, besteak beste, begirada jarriz (Bonal, 1998).

Bestalde, hezkidetzaren historia aztertzen dugun atalean ikusi bezala, hezkuntza sistema erregulatu duten legeek paper garrantzitsua bete dute igorpen-prozesu horretan: 1857ko Moyano Legearen curriculum bereiztuetatik, 1990eko LOGSEren hezkuntza

planifikazioraino, sexuen arteko diskriminazioa onartu eta berdintasuna bermatzen duena.

Legeekin estuki lotuta dagoena, bestalde, curriculum arrunta da. Izan ere, legeek alda ditzaketen ikas-helburu eta edukiak biltzen ditu curriculumak, indarrean dauden politikarien eskuetan gera daitezkeenak. Oso adibide argiak topa ditzakegu historian atzera egindako irakurketarekin; eskola mixtoarekin batera emakumeak unibertsaltzat hartzen den curriculum maskulinora batzea, kasu.

Beraz, aipatutako guztia kontuan hartuta, ondorioztatzen ahal dugu curiculum arruntaz gain, sexismoa bezalako beste hainbat balore hegemoniko transmititu eta erreproduzitzen jarraitzen direla curriculum ezkutuaren bitartez.

Ikusi bezala, eskolako elementu askok hartzen dute parte sexismoaren transmisioan; modu esplizitu zein inplizituan; hots, curriculum arrunta zein curriculum ezkutuaren bitartez. Horietatik guztietatik guri interesatzen zaigun gaia, ordea, material edo baliabide didaktikoena da, hain zuzen ere. Hauek eskola barruan eguneroko jardunean erabiltzen diren baliabideak dira, hortaz, perspektiba hezkidetzaile batetik sakon aztertzea beharrezkoa dela esango dugu eskola hezkidetzailea lortzeko prozesuan.

1.2.4. Material didaktikoaren kontzeptualizazioa

Baliabide hauen analisiarekin hasi aurretik, aldiz, ezinbestekoa da material didaktikoen inguruko kontzeptualizazio moduko bat egitea. Material didaktikoak inprimatutako, ahozko edota irudizko baliabideak dira, hezkuntza helburu eta curriculumeko edukien garapena lortzeko laguntza moduan erabiltzen direnak.

Edukia azaldu eta erakusteaz gain, erabiltzen dituenarekin interakzionatzen dute, kontzeptu berriak ikasi, gaitasunen ariketa eta garapena bermatu baita elementuen konprobazioa egiteko ere. Orokorrean, material hauek ikaslearen interesa pizteko sortuak dira, ikasketa aktiboagoa egin eta bere arreta mantentzeko asmoa dutelarik.

Material didaktikoen definizioari helduz, UNESCOk sortutako eskuliburuari (UNESCO, 1989) helduko diogu:

> “Los materiales didácticos pueden definirse como aquellos instrumentos tangibles que utilizan medios impresos, orales o visuales para servir de apoyo al

> logro de los objetivos educativos y al desarrollo de los contenidos curriculares. Además de exponer y demostrar un contenido, interactúan con quien los utiliza para apoyar el aprendizaje de nuevos conceptos, el ejercicio y desarrollo de habilidades y la comprobación de elementos (…) son componentes de un proceso educativo que facilitan la enseñanza y el aprendizaje y por tanto el desarrollo de conocimientos, habilidades y valores que se pretenden alcanzar" (UNESCO, 1989, or. 9)

Bestalde, Diz eta Fernándezek (2015) aipatzen duten Marquésen (2011) ustetan, material didaktikoa edozein hezkuntza egoeratan erabiltzen den materiala da, helburu horrekin sortu ez bada ere. Horrela, gure inguruko edozein baliabide hezkuntza-helburuekin erabiltzen denean, hezkuntza material bihurtuko da (Diz & Fernández, 2015).

1.2.5. Material didaktikoen analisia ikuspuntu hezkidetzaile batetik

Beraz, jardun hezkidetzailea gauzatzea helburu badugu, ezinbestekoa zaigu aipatutako baliabideak genero perspektiba batetik analizatzea, horiek elikatzen ahal dituzten balore, estereotipo, rol eta sinesmenak identifikatu eta azterketa hori kontuan hartuta, ikasleak kontziente egitea.

Izan ere, testuliburuak, ipuinak eta idatzizko bestelako materialak –ikasleak edo irakasleak sortua, zein publikatutakoak – emakumeak eta hauen lan eta baloretzat hartzen direnak diskriminatzen dituen gizarte batean jaio dira. Hortaz, bistako ezaugarri sexistez beteta egon ohi dira, analisi sistematikoen bidez aztertzen ahal direnak (Subirats & Tomé, 1992).

Material didaktikoa, besteak beste, ikuspuntu hezkidetzaile batetik analizatzearen kontuak, ordea, urte batzuetatik honako ibilbidea du. Material didaktikoetan ematen den sexismoa aztertu duten aitzindariak, batik bat, hurrengoak dira: Garreta eta Careaga (1987), Subirats (1993), Blanco (2000) eta Peñalver (2001) (López-Navajas, 2004).

Bestalde, ikerketa esparru honetan gehien landutakoa zera izan da: testuliburuetan genero femeninoaren inguruan eman den irudikapen desberdina (González M. , 2014). Testuliburu hauek dira, hain zuzen ere, estereotipo eta aurreiritzien funtzioak aztertzeko

abiapuntu ezin hobea, identitateak, batik bat, garatzen diren esparruari dagokionean (Berghahn & Schissler, 1987).

Hau guztia kontuan hartuta, mota honetako analisi batean kontuan hartu beharreko elementuen inguruan arituko gara. Horretarako, historian zehar proposatutako analisi-fitxa ezberdinak aurkeztuko ditugu.

*Taula 2*an, esaterako, pertsonaia eta mezuei, batez ere, garrantzia ematen dien txantiloia aurkezten da (Red2Red Consultores SL, 2007, or. 67):

Taula 2. Pertsonaia eta mezuen analisi plantilla

Zer aztertu?	Pertsonaiak	Mezuak
Zertan jarri arreta?	Pertsonaien eredu ezberdinetan: ▪ Banakakoa: ehiztaria edo irakaslea. ▪ Taldekoa: erizainak edo suhiltzaileak, taldekatze generikoa, gizadia. ▪ Generorik gabekoa edo asexuatuak: mamuak, animaliak, estralurtarrak.	Adierazpen, esaldi eta irudien esanahietan. Mezua errealitatearen adierazpen sinboliko gisa. Rol, lan, ezaugarri, gaitasun, etabarren esleipena.
Zer helbururekin?	Identifikatu, kategorien arabera antolatu (sexua, adina, zeregina) testuliburuetan emakumeek duten presentzia edo ausentziaz ohartzeko, sexu bakoitzari esleitzen zaizkion rol eta estereotipoak analizatzeko, zein ager daitekeen diskriminazio sexista detektatzeko asmoz.	Balore eta ideien transmisioan hizkuntzak duen papera analizatu, baita genero maskulinoari erreferentzia moduan ematen zaion erabilera ere aztertu. Femenino eta maskulinoaren ereduak aztertu, emakumeei aitortzen zaien garrantzia.
Non bilatu?	Irudiak, testuak eta laguntzarako ariketak: ▪ Irudikapen grafikoak: batez ere hezkuntzako lehen mailetan, ezagutzen transmisio eta balore zein gizarteko arauak erreproduzitzeko prozesuetan garrantzi berezia hartzen baitute. ▪ Testua: irakurketa lasaia eta zenbaitetan konplexua eskatzen du, ager daitezkeen elementu diskriminatorioak identifikatzeko asmoz. ▪ Hizkuntza: hizkuntzaren erabilera arduratsua behar du izan, generoaren perspektiba gehitzen duena. Izan ere, patroi kultural sexistak betikotzeko oinarrizko elementua da.	

Badira, ordea, analisia esparru linguistikoa eta esparru ikonikoan zentratzen direnak; *Taula 3*, kasu (Diz & Fernández, 2015, or. 119):

Taula 3. Kodigo linguistikoa eta kodigo ikonikoa analizatzeko plantilla

Kodigo linguistikoa:	**Kodigo ikonikoa:**
▪ *Androzentrismoa* neurtzeko bi adierazle zehaztu ziren: maskulino generikoa eta lehentasun-ordena. ▪ *Gehiegizko zehaztapena* hurrengo adierazleen bidez: omisioa, bazterketa, ezkutaketa. ▪ *Arau bikoitzaren* edo *estandar bikoitzaren kriterioa* neurtzeko hurrengo adierazleak: pasibitatea, jarduera, adjektibo estereotipatuak, irudi mental estereotipatuak, degradazio semantikoa.	▪ *Bi generoen presentzia.* Sexu bat edo bestea irudian agertzen den frekuentzia. ▪ *Protagonismoa.* Ilustrazioaren ideia nagusia oinarritzen den figura (femenino edo maskulinoa). ▪ *Estereotipoak:* - Rolekin lotuta: rol sozialak, politikoak, familiarrak, profesionalak, pertsonak egindako ekintzen ondorio zuzena. - Izaerari lotutako ezaugarriak.

Laugarren taulan (*Ikus Taula 4*), aldiz, formatu ezberdinetan aurkezten ahal diren materialen helburu eta edukiei, gehien bat, ematen zaie garrantzia (Sainz Pelayo, 2013, or. 15-17):

Taula 4. Formatu ezberdinetan aurkeztutako materialen analisi-plantilla

Titulua: ▪ Argitaratze data: ▪ Argitaletxea:
Hartzaileak: materiala zuzenduta dagoen hezkuntza prozesuaren agenteak. ▪ Irakasleak ▪ Familiak ▪ Ikasleak
Curriculumeko arlo edo gaiak: materialean landu edo garatzen den hezkuntza eduki nagusia ▪ Hizkuntza eta literatura ▪ Hezkuntza sexuala ▪ Gorputz hezkuntza ▪ Eguneroko bizitza: sukaldea, etxeko lanak… ▪ Historia ▪ …
Helburuak: zein den baliabidearen asmo nagusia.
Edukia eta tipologia: zer informazio biltzen den baliabidean eta hura nola estrukturatzen den. Gomendioak, kontuan hartzeko pautak… edo lan egiteko eduki praktikoez osatuta dago. ▪ Teorikoa ▪ Praktikoa - Gela barruko ariketen barruan sar daitezkeenak - Unitate didaktikoak - Programak - Baliabide-karpetak - …

Ariketa motak:

- Testu-ulermena eta galdera-erantzunak
- Jokoak
- Denbora-pasak
- Eskulanak
- …

Esku-hartzearen testuingurua: zein testuingurutan erabiltzeko prestatua dagoen

- Gela
- Ikastetxea
- Etxea

Baliabide eta formatuak:

- Baliabideak: aztertutako baliabideak berak, eskaintzen dituen materialez gain, bestelako erraminta edo materialak bilatzeko egiten duen erreferentzia.
  - Materialak berak eskaintzen ditu
  - Beharrezkoak diren baliabideak zehazten dira
- Formatua: materiala aurkezten den euskarri mota
  - Papera
  - Digitala
  - Web
  - CD/DVD
  - …

*Taula 5*ean aurkezten dugun analisi-txantiloia, bestalde, Disney-ko filmetan espezializatuta dago (Ramos I. , 2009, or. 36):

Taula 5. Disney filmen analisi plantilla

Gizonak	Emakumeak
Pertsonaia nagusia: ▪ Ezaugarri fisikoak ▪ Ezaugarri psikologikoak Familia (nomenklatura). Laguntzaileak: ▪ Ezaugarri nagusiak	Pertsonaia nagusia: ▪ Ezaugarri fisikoak ▪ Ezaugarri psikologikoak Familia (nomenklatura). Laguntzaileak: ▪ Ezaugarri nagusiak
Erasotzailea: ▪ Ezaugarri fisikoak ▪ Ezaugarri psikologikoak Laguntzaileak: ▪ Ezaugarri nagusiak	Erasotzailea: ▪ Ezaugarri fisikoak ▪ Ezaugarri psikologikoak Laguntzaileak: ▪ Ezaugarri nagusiak
Beste pertsonaiak: ▪ Lanbideak, rolak, etabar.	Beste pertsonaiak: ▪ Lanbideak, rolak, etabar.
Apaindura-elementuak. Egoera-kontestuak.	Apaindura-elementuak. Egoera-kontestuak.
Hasierako egoera. Ekintza aipagarriak. Amaiera.	Hasierako egoera. Ekintza aipagarriak. Amaiera.

Ikusitako aurreko fitxak orokorrean analisi kualitatibo batera zuzenduta badaude ere, badira ezaugarri kuantitatiboei garrantzia jartzen dietenak ere (Área de Juventud. Educación y Mujer del Cabildo Insular de Tenerife, 2005, or. 44):

Taula 6. Ipuinak aztertzeko analisi-plantilla

Egilea: Editoriala: Behaketa data:

Kopuru totala:	**Testua**	**Irudia**
Pertsonaiak		
Pertsonaia femeninoak		
Pertsonaia maskulinoak		
Protagonista neska edo emakumea		
Protagonista mutila edo gizona		
Mendeko rola duten neska edo emakumeak		
Mendeko rola duten mutil edo gizonak		
Lan ordaindua duen emakumeak		
Lan ordaindua duen gizona		
Etxeko lanetan ari diren emakume edo neskak		
Etxeko lanetan ari diren gizon edo mutilak		
Ekintza intelektualetan ari diren emakume edo neskak		
Ekintza intelektualetan ari diren gizon edo mutilak		
Rol pasiboa duten emakume edo neskak		
Rol pasiboa duten gizon edo mutilak		
Ikuspuntu sozialetik negatiboak diren emakume edo neskak		
Ikuspuntu sozialetik negatiboak diren gizon edo mutilak		

Aurreko analisiaren antzekoa den baina adierazleak aldatzen dituen beste plantilla batzuk proposatzen dizkigute Subirats eta Tomék (Subirats & Tomé, 1992, or. 20-23). Sexismoa erreproduzitzeko erabiltzen diren estrategien araberako hiru analisi-taula (*Ikus Taula7, Taula 8* eta *Taula* 9) proposatzen dituzte:

Taula 7. Testu liburuak, ipuinak eta irudiak: esklusio, omisio eta anonimatuagatik adierazitako eduki sexistak

	1. Behaketa		2. Behaketa		3. Behaketa		4. Behaketa					
	Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Totala		%	
Kopuru totala:	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia
Pertsonaiak												
Pertsonaia femeninoak												
Pertsonaia maskulinoak												
Izen propioa duten gizonak												
Izen propioa duten emakumeak												
Gizon protagonistak												
Emakume protagonistak												
Elkarrizketa edo ekintza bat hasten duten gizonak												
Elkarrizketa edo ekintza bat hasten duten emakumeak												
Oharrak												

Taula 8. Testu liburuak, ipuinak eta irudiak: mendekotasunagatik adierazitako eduki sexistak

	1. Behaketa		2. Behaketa		3. Behaketa		4. Behaketa					
	Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Totala		%	
Kopuru totala:	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia
Emakumeen parte-hartzeak												
Gizonen parte-hartzeak												
Menpeko rola duten emakumeak												
Menpeko rola duten gizonak												
Euren ekintzagatik adierazitako emakumeak												
Euren ekintzagatik adierazitako gizonak												
Lan ordaindua duten emakumeak												
Lan ordaindua duten gizonak												

Taula 8. *Jarraipena*

	1. Behaketa		2. Behaketa		3. Behaketa		4. Behaketa					
	Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Totala		%	
Kopuru totala:	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia
Etxeko lanak egiten ari diren emakumeak												
Etxeko lanak egiten ari diren gizonak												
Jarduera intelektualetan ari diren emakumeak												
Jarrera intelektualetan ari diren gizonak												
Ardurako lan-postuetan dauden emakumeak												
Ardurako lan-postuetan dauden gizonak												
Bestelako oharrak												

Taula 9. Testuliburuak, ipuinak eta irudiak: itxuraldatze edo degradazioagatik adierazitako eduki sexistak

	1. Behaketa		2. Behaketa		3. Behaketa		4. Behaketa					
	Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Argitalpen data: Autorea: Editoriala: Behaketa data:		Totala		%	
Kopuru totala:	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia	Testua	Irudia
Gizarteak negatibotzat hartutako emakumeak												
Gizarteak negatibotzat hartutako gizonak												
Rol pasiboa duten emakumeak												
Rol pasiboa duten gizonak												
Lan-jarreretan dauden emakumeak												
Lan-jarreretan dauden gizonak												
Objektu sexual moduan irudikatutako emakumeak												
Objektu sexual moduan irudikatutako gizonak												
Jolas-jarreratan irudikatutako emakumeak												
Jolas-jarreratan irudikatutako gizonak												
Bestelako oharrak												

Emakundek, bestalde, aurretik aurkeztutako analisi-plantillak (*Taula 2, Taula 3, Taula 4, Taula 5, Taula 6, Taula 7, Taula 8, Taula 9*) baino osatuago dagoen txantiloia proposatzen du, pertsonaien ezaugarri eta arlo ezberdinak ukitzen dituena. *Taula 10*ean irudikatuta ikus dezakegu, hortaz, Emakundek sortutako txantiloia (Zaitegi de Miguel & Urruzola, 1993, or. 15):

Taula 10. Material kurrikularren berrikuste eta analisia ikuspuntu hezkidetzaile batetik

Titulua:	Maila:	
Autoreak:	Kapitulua:	
Argitaletxea:	Orrialdea:	Unitate didaktikoa:

	Pertsonaia femeninoak	**Pertsonaia maskulinoak**
1. PRESENTZIA ▪ Pertsonaia kopurua ▪ Genero maskulinoa duten izenak, bi sexuak barne hartzen dituen epizeno edo femenino baten ordez jar daitezkenak		
2. PROTAGONISMOA ▪ Izen propioa dute ▪ Protagonista nagusia ▪ Elkarrizketa edo ekintzari hasiera ematen dio ▪ Elkarrizketetan duen parte hartze kopurua		
3. ESPAZIOA Espazio publikoa: ▪ Ordaindutako lantokietan ▪ Ekitaldi edo espazio publikoetan Espazio pribatua: ▪ Etxean, denda batean, auzoan… ▪ Inguru itxia / familia ingurua		
4. LANBIDEAK ▪ Lan ordaindua. Lanbide kopurua ▪ Lanbidearen arabera irudikatutako pertsonak ▪ Lan intelektuala egiten ▪ Ardura profesional handiko lanpostuak ▪ Beste sexukoak menpe dituen nagusi gisa agertu ▪ Tradizioan bere generoari esleitzen zaizkion lanbideen bestelakoetan agertu		
5. AISIALDIA ▪ Kirola egiten ▪ Mugimendua, ekintza edo gizarte-harremanak eskatzen dituzten aisialdiko ekintzak ▪ Aisialdiko ekintzetan agertzen diren pertsonaia helduak		
6. ETXEKO LANAK ▪ Etxea eta familia mantentzeko oinarrizkoak diren ekintzak gauzatzen (laguntzakoak ez)		

▪ Adineko pertsonak, gaixoak… zaintzen ▪ Familiaren beste kideak laguntzen		
7. FAMILIAKO ESTATUSA ▪ Autoritatea duen familiako figura, prestigio edo garrantzi handiagokoa		
8. GIZATASUNAREN GARAPENARI EGINDAKO EKARPENAK ▪ Ugalketan ▪ Arlo zientifiko, ekonomiko, kultural, sozial…ean		
9. GORPUTZAREN TRATAMENDUA ▪ Gorputzaren presentzia ▪ Esleitutako funtzioak ▪ Nabarmendutako zatiak, postura eta irudia		
10. BALOREAK ▪ Garatzen dituzten baloreen zerrendapena		
11. IGURIKAPENAK ▪ Esleitzen zaizkien adjektiboen zerrendapena ▪ Aditz berak erabiltzen dira		

BEHAKETAK:

ONDORIOAK:

- Alderdi hezkidetzaileenak:

- Hezkidetzaileak ez diren alderdiak:

BALORAZIO OROKORRA:

1. Oso negatiboa. Negatiboa. (Ez da erabilgarria)

2.Ez da egokiegia. (Ez da gomendagarria)

3.Nahiko egokia (Erabilgarria, dituen estereotipoak zuzentzen diren bitartean)

Txantiloi guztiak ikusi ondoren, argi dago, beraz, bakoitzak ezaugarri batzuetan edo besteetan jartzen duela arreta; hala nola, irudietan, pertsonaietan edota edukian. Batzuk zabalagoak dira, baliabide mota eta formatu ezberdinak analizatu ahal izateko; Sainz Pelayoren (Sainz Pelayo, 2013) txantiloia (*Ikus Taula 4*), kasu. Badira beste batzuk, ordea, aztertuko duten baliabide motaren araberako itemak proposatzen dituztenak; Disney filmak (Ramos I. , 2009) bereziki analizatzeko prestatu dena (*Ikus Taula 5*), adibidez.

2. ATAL PRAKTIKOA

2.1. Sarrera

> "Hezkidetzan oinarritutako filosofiatik abiatuta egiten diren analisietan, ikusmolde androzentrikoak baliogabetu behar dira lehenik, partzialak direlako eta objetibotasunik ez dutelako bederen, eta errealitate globalaren interpretazio zientifikoak egiteko ahalegina egin behar da"
>
> M. José Urruzola Zabalza, 1995

Lan honen arlo praktikoari dagokionean, aurreko ataletan behin baino gehiagotan aipatu den material didaktikoen analisia garatuko dugu, ikuspuntu hezkidetzaile batetik egingo dena. Horretarako, analisia gauzatuko den testuingurua baita aztertuko diren elementuak ere aurkeztuko ditugu; kasu honetan, hain zuzen ere, Mutiloako (Iruñea) San Pedro Ikastetxeko 3 urteko haurren gelan dauden ipuinak aztertuko ditugu.

2.2. Testuingurua

Argi dago, aurrera eraman dudan ikerketaren testuingurua ezagutzea ezinbestekoa dela. Esan bezala, eskola publiko bateko 3 urteko gelan dauden eta erabiltzen diren ipuinen inguruan egin dut analisia, eta hortaz, eskola eta ikasgelaren testuinguruan kokatzea beharrezkoa izango da. Izan ere, funtsezkoa da tokian tokiko egoera ezagutu eta ulertzea bertan ematen diren fenomenoak interpretatu ahal izateko.

2.2.1. San Pedro Ikastetxe Publikoa

Aurreko atalean aipatu bezala, San Pedro Ikastetxe Publikoa Mutiloan kokatuta dago; poligono industrialaren eta ibaiaren artean, udal polikiroldegiaren ondoan. Arangurengo ibarra osatzen duten zenbait herri eta auzoetatik heltzen da ikaslegoa, baita Iruña zein gertuko udalerrietatik ere.

70eko hamarkadan jaiotako eskola da, hasiera batean lerro bakarrekoa. Hala ere, gaur egungo biztanleriaren hazkuntza dela eta, hiru lerroko (2. eta 6. mailetan izan ezik) eta

batzuetan lau lerroko ikastetxea bihurtu da San Pedro. Momentu hauetan 476 ikasle daude eskolatuak ikastetxe honetan, 54 irakasle eta bi orientatzaileren ardurapean.

2008-2009 ikasturteaz geroztik D eredua eskaintzen hasi zen. Egun, 151 ikaslek hartzen dute parte eredu honetan, Haur Hezkuntzako 1. mailatik Lehen Hezkuntzako 5. maila arte banatuta daudenak.

Horrez gain, eskolak A eta G ereduak eskaintzen ditu; PAI programa ere 2013-2014 urtetik aurrera ezarriz –momentuz, Haur Hezkuntzan bakarrik–.

Hedapen urbanistikoa dela eta, ikasle kopurua eta hauen perfila ere aldatuz joan da azken urteotan. A eta G ereduetan, esaterako, ikasle inmigranteen kopurua dezente igo da, Mutiloako populazioaren perfila ere aldatuz joan delako.

Haatik, D ereduan ez dira atzerriko jatorrietatik datozen horrenbeste ikasle ikusten. Orokorrean, eredu honetako familia eta ikasleen maila ekonomiko eta kulturala altuagoa da.

Espazioari dagokionean, zentroaren bi handitze eman dira azkeneko bi urteetan. Honi esker, talde bakoitzeko jatorrizko gelaz gain, bestelako zerbitzuak eskaintzen dituzten aretoak egokitu dira; hala nola, gimnasioa, liburutegiak, informatika gela, musika gela, Haur Hezkuntzarako plastika tailerra eta hainbat bulego. Gainera, jolastoki zabala du kanpoan, zuhaitzez beteriko berdegune batez inguratuta, futboleko eta saskibaloiko kantxa eskainiz, zein aterpe batez hornituta.

Ikaslego kopuruak gora egin duen heinean, ordea, psikomotrizitateko gela kendu behar izan da, baita erabilera anitzeko gela ere. Era berean, jantokiko bi txanda egitera behartuta daude, ez baitira ikasle guztiak bertan sartzen.

Bestalde, San Pedro Ikastetxeak Arangurengo Ibarko Udaletxearekin zein APYMArekin harreman estua mantentzen du. Horri esker, Udalak eskolaren funtzionamendua hobe dezaketen zenbait zerbitzu eta instalazio jartzen ditu ikastetxearen esku; ekintza osagarrien kostuaren %75a osatzen duen diru-laguntza, ikasleen garraiorako finantzazioa, polikiroldegi, igerileku eta frontoiaren erabilera Gorputz Heziketa saioetarako eta ipuinkontalariak, besteak beste.

Halaber, APYMAk zerbitzu osagarriak eskaintzen ditu; hala nola, jantokia, ume-zaintza, aisialdiko jarduerak eta Gurasoentzako Eskola. Gainera, NUPeko Gizarte Ekintzako

Unitatearekin harremana mantendu eta egoera sozioekonomiko zaila duten familien haurrentzako ikas-laguntza eskaintzen da San Pedro Ikastetxean, unibertsitate berako ikasleek praktikak bertan egiteko aukera dagoen bitartean.

Eskolako hezkuntza proiektuak ikasten ikasteko beharrezkoak diren konpetentziak lortzea du helburu nagusi, egiten ikastea eta izaten ikastea alboan utzi gabe. Gizarte konpetentziei, bai eta autonomia eta iniziatiba pertsonalerako konpetentziei ere berebiziko garrantzia ematen zaie, hezkuntza-komunitate osoak elkarlanean sortutako Bizikidetza Planaren bitartez. Bestalde, Hizkuntza Ingelesa eta Teknologia Berrien garapen prozesuari interes berezia jartzen zaio eskola honetan.

Horrez gain, hezkuntza premia berariazkoak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen integrazioari arreta berezia ematen zaio, Aniztasunari Arreta Plan baten bidez. Ildo berean, Garapenaren Trastorno Orokorra duten ikasleei zuzendutako aparteko ikasgela dauka eskolak, PT irakasle batek eta bi zaintzailez hornitzen dena.

Amaitzeko, jai orokorren ospakizunak ere zaintzen dira San Pedron; hala nola, Eguberrietako Jaia, Inauterietako Jaia, Euskararen Astea, Liburuaren Eguna, etabar.

2.2.2. Ikasgela

Behin San Pedro Ikastetxe Publikoko testuinguruaren inguruko pintzeladak zehaztuta, gelaren testuingurua azaltzea ezinbestekoa da. Izan ere, gela horretatik atera ditugu hurrengo ataletan aztertuko ditugun ipuinak. Hortaz, honen egoera eta ezaugarriak kontuan hartzea beharrezkoa izango da ondorio esanguratsuenak ulertu eta horiei esanahia emateko asmoz.

Lehenik eta behin, aipatu beharrekoa da San Pedro Ikastetxeko Haur Hezkuntza etapako D ereduko lerroetan gainontzeko irakasleek jorratzen ez duten metodologia zehatza lantzen dela. Izan ere, D ereduko Haur Hezkuntzako lehenengo, bigarren eta hirugarren mailek, egunero giroen metodologia aplikatzen dute goizeko bi orduetan. Beraz, eguneko lehenengo ordu horietan, 3, 4 eta 5 urteko haurrak nahastu egiten dira gela – giro – ezberdinetan.

Esan bezala, Haur Hezkuntzako 1. mailako haurrek erabili eta lantzen dituzten ipuinak aztertuko ditugu; hots, 3 eta 4 urteko haurren ipuinak. Ikasturte hasieratik 24 haur izan dira gelan, maiatzaren hasieran ama euskalduna eta aita frantsesa duen Panamako haur

berri bat etorri zen arte. Beraz, osotara 25 lagun dira gelan; horietatik 9 neska izanik eta gainontzeko 16ak mutilak. Hauek guztiak emakumea den irakasle baten ardurapean daude.

Ikasgelan bertan egindako behaketei esker, ipuinek hizkuntzaren garapenean laguntzeko funtzio nagusia dutela esan dezakegu, gehien bat. Nahiz eta kontatzen diren ipuinen edukian erreparatu, ez zaie arreta berdina jartzen hauek transmititu ditzaketen balore guztiei. Izan ere, D ereduan egonda, baita familia gehienen ama-hizkuntza erdera izanik ere, haurrengan euskararen garapena bultzatzeko, gehien bat, erabili ohi dira ipuinak.

2.2.3. Analizatuko ditugun ipuinak

Aipatu beharreko beste puntu bat, bestalde, aurreko puntuan deskribatutako ikasgelan egiten den ipuinen aukeraketari dagokio. Ikasgelako txoko batean biltzen dira ipuin guztiak, kutxa baten barruan. Bertan, irakasleak aukeratutakoak eta, askotan, haurrek etxetik ekarritakoak nahasten dira. Izan ere, haurrak dira maiz etxetik ipuin bat edo beste ekartzen dutenak, irakasleak denen aurrean kontatzeko asmoz. Horrek, irakasleak gainbegiratu edo aukeratu ez dituen ipuinak agertzea dakar.

Hona, beraz, ikasgela barruan haurren esku aurkitzen ahal ditugun ipuin guztien zerrenda:

- “Bihotz-bihotzetik” (Jadoul, 2013)
- “Burgik besarkada bat behar du” (Melling & Meabe, 2013)
- “Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxoa” (Holzwarth, Erlbruch, & Izaguirre, 2011)
- “Caillou txakurrarekin” (Harvey, 2009)
- “Gabon, hontza!” (Hutchins & López, 2013)
- “Gose handiko beldarra”[1] (Carle, 2007)
- “Hartza eta Katalin munduan barrena noraezean” (Pieper & Izaguirre, 2000)
- “Igeritz” (Lionni, 2007)
- “Joshemiguelericok bere koroa galdu du” (Rubio & Sáiz, 2016)

[1] Ipuin honen kasuan, ezinezkoa izango dugu prestatutako behaketa-orria aplikatzea, agertzen diren bi pertsonaiak genero neutrotzat hartu baititugu.

- “Kokoriko” (Núñez, Bansch, & Goikoetxea, 2010)
- “Koloreak” (Deneux, 2014)
- “Koloreak”[2] (Tullet, 2015)
- “Maite zaitugu, Burgi!” (Melling & Meabe, Maite zaitugu, Burgi!, 2014)
- “Neu naiz ederrena” (Ramos M. , 2008)
- “Pirritx titia ematen” (Murua & Tokero, 2013)
- “Pupu eta Lore zilipurdika” (Alberdi & Tokero, 2013)
- “Untxitxo txuria” (Ballesteros & Izaguirre, 2014)
- “Urtaroak ezagutzen” (Slegers, 2015)
- “Urtxintxa 3-1, Bigarren Ipuina : Hiru txerrikumeak” (Ormazábal & Mitxelena, 1998)
- “Urtxintxa 3-1, Hirugarren Ipuina : Txanogorritxo” (Ormazábal & Odriozola, 1998)
- “Zerlea” (Genechten & Ezkiaga, 2013)

2.3. Justifikazioa

Lehenik eta behin, analisi erreala egin eta ondorio errealak ateratzeko, testuinguru erreal bat behar genuen. Testuinguruaren atalean aipatu bezala, beraz, gaur egun eskoletan bizi den errealitatera hurbiltzeko, Iruñeko eskola bateko D ereduko ikasgela batean sartu gara; bertan erabiltzen den material didaktikoa aztertzera, hain zuzen.

Aipatzekoa da, 3 urteko haurren gela izanik, oso ohikoa dela ipuinek berebiziko garrantzia hartzea ikasgela barruan. Izan ere, haur literatura balore, eredu eta jarreren transmisio- eta adierazpen-bide garrantzitsua da (Área de Juventud. Educación y Mujer del Cabildo Insular de Tenerife, 2005).

Are gehiago, D ereduko ikasgela baten inguruan ari garenez gero, euskarak paper garrantzitsua hartzen du eskolaren egunerokotasunean. Euskaltzaindiak (Idiazabal & Manterola, 2009), esaterako, Haur Hezkuntzan euskara lantzeko erabiltzen diren 3 material didaktiko pisutsuenen artean sartzen du ipuina:

[2] Ipuin honen kasuan ezin izango dugu prestatutako behaketa-orria aplikatu, ez baita pertsonaiarik aurkezten. Areago, irakurle bera da protagonista, generoa eta sexua kontuan hartu gabe, zenbait jarduera egitera gonbidatzen duelarik.

> "Haur Hezkuntzarako material didaktikoei dagokienez, hiru aztarna nagusi bereiz litezke nahikoa argi euskararen edukiei begiratuta: ipuina (ahozko mintzaira lantzeko funtsezko bitartekotzat); hizketa egintzak edo Tough-en hizkuntza funtzioak bezala aipatu izan direnak; eta aditz formak edota deklinabidea bezalako gramatika alderdiak, hiztegiarekin batera." (Idiazabal & Manterola, 2009, or. 481)

Gainera, San Pedro Ikastetxeko ikasgelan egindako behaketaren ondoren, baiezta dezakegu ipuina astean hirutan lantzen dela irakaslearen eskutik, batez beste. Halaber, ikasleen iniziatibak gidatuta ere, haurrek beraiek hartu eta irakurtzen dituzte gelako ipuinak, modu erabat autonomoan. Horrek, haurren egunerokotasunean oso presente dagoen material didaktiko bihurtzen du ipuina, hauen analisia are garrantzitsuagoa bilakatuz.

Bestalde, analizatutako ipuin guztiek alde ikonografiko esanguratsua dute. Irudiek, izan ere, berebiziko garrantzia hartzen dute, batez ere, lehenengo etapetan.

> "Constituyen el elemento que llama más la atención, porque es lo que salta a la vista en primer lugar. Las imágenes son tan importantes como los textos, ya que transmiten un mensaje paralelo. Su importancia es sobre todo destacada en las primeras etapas de la vida, en las que las imágenes juegan un papel protagonista en la estructuración de la personalidad, tanto del sí mismo/a como del entorno." (Área de Juventud. Educación y Mujer del Cabildo Insular de Tenerife, 2005, or. 35)

Ipuinak analizatutako testuinguruan duen pisuagatik, beharrezkoa dugu gai hau atal teorikoan azaldutako problematikekin lotzea. Izan ere, ipuina eskola barruan erabiltzen den material didaktikoen artean oso erraminta ohikoa da, aipatu bezala, gela honetan are pisu handiagoa hartuz –euskara garatzeko prozesuan, hain zuzen –.

Gauzak horrela, eta ipuina material didaktikoa den heinean, hauek ere badute analisi beharra; hauen bitartez transmititzen baitira kultur hegemonikoaren balore gehienak. Horien artean, alabaina sexismoa ere topatzen dugularik.

Gure burua eskola hezkidetzailea eraikitzeko bidean kokatzen dugunez, hortaz, balore hezkidetzaileak indartu eta eduki sexistak gure jardunetik baztertzeaz arduratu behar dugu. Horretarako, ezinbestekoa izango da, beraz, gela barruan erabiltzen dugun oro – hitz, material, metodo – zehaztasunez aztertzea, existitzen diren baloreak eta hobetu beharreko elementuak kontuan hartu eta horietatik abiatuta proposamen hezkidetzailea sustatzeko asmoz.

Beraz, eskuartean duzuen lana justifikatu baino justifikatuago dagoela baiezta dezakegu; aukeratu testuinguruaren behar eta ezaugarriak kontuan hartuta, hezkidetza ikuspuntu batetik egin beharreko material didaktikoen analisiak are eta garrantzi handiagoa hartzen baitu.

2.4. Helburuak

Aurrera eramandako ikerketa honekin lortu nahi ditugun helburuak bi multzotan banatu ditugu; alde batetik, eskuratu nahi dugun helburu orokorra eta, bestetik, zehatzagoak diren helburu espezifikoak.

- *Helburu orokorra*:
  - Ipuinetan ager daitekeen sexismoaren presentzia eta pisua ezagutzea.
- *Helburu espezifikoak:*
  - Sexismoa transmititzen duten ipuinak identifikatu.
  - Ipuinetan sexismoa transmititzeko erabiltzen diren egoera eta ezaugarri esanguratsuenak identifikatu.
  - Ipuinek genero-identitatearen eraikuntzan duten garrantzia baloratu.
  - Emakumeek eta pertsonaia femeninoek ipuinetan duten presentzia neurtu.
  - Emakumeek eta pertsonaia femeninoek ipuinetan duten protagonismoa neurtu.

2.5. Hipotesiak

Hurrengo zerrendan ikerketa honetan planteatu diren hipotesiak biltzen dira:

- Ipuinek eduki sexistak transmititzen dituzte.
- Ipuinek eragin handia dute haurren genero-identitatearen eraikuntzan.

- Emakumeek eta pertsonaia femeninoek presentzia gutxi dute ipuinetan, gizon eta pertsonaia maskulinoekin konparatuta.
- Emakumeek eta pertsonaia femeninoek protagonismo gutxi dute ipuinetan, gizon eta pertsonaia maskulinoekin konparatuta.

2.6. Metodologia

Aurkeztutako ikerketa aurrera eramateko, behaketa-taula edo txantiloia prestatu dugu. Landutako aitzindarien analisiak gainbegiratuta, horietan oinarrituta sortu dugu plantilla (*Ikus Taula 11*). Ipuinen hezkidetza maila neurtzeko beharrezkoak iruditu zaizkigun adierazleak aukeratu ditugu, testu zein irudietan agertzen diren mezuetan arreta jarriz.

Arlo teorikoan aztertutako zenbait autorek (Zaitegi & Urruzola, 1993) (Subirats & Tomé, 1992) gutxienez orrialdeen % 10ari aplikatzea eta ahalik eta aleatorioen egitea gomendatzen badute ere, guk ipuinaren orrialde guztiei aplikatuko diegu sortutako txantiloia, bertan agertzen diren testu eta irudi guztiak kontuan hartzen ditugularik.

Guk sortutako txantiloiari erreparatuta ondorioztatu daitekeen moduan (*Ikus Taula 11*), Subirats eta Tomék (1992) eta Emakundek (1993) proposatutako plantillak uztartuz (*Ikus Taula 7, Taula 8, Taula 9 eta Taula 10*) sortu dugu gurea. Bertan pertsonaia femenino eta maskulinoen presentzia, protagonismo eta rolari eman zaio garrantzi handiena, gehien bat. Horrez gain, pertsonaia femenino eta maskulino horiek agertzen diren espazioen ezaugarriak, lanbide motak eta aisialdiaren ohikotasunak ere identifikatzeko balio duten adierazleak kontuan hartu ditugu.

Bestalde, Diz eta Fernándezek (2015) berebiziko garrantzia ematen dioten ikonografia ere kontuan hartzea ezinbestekotzat hartu dugu. Izan ere, bi autore horiek (Diz & Fernández, 2015) aipatzen duten Marqués-ek (2011) dion moduan, sistema sinbolikoak informazioa transmititzeko erabiltzen dituen erramintetako bat da irudia.

Hau guztia kontuan hartuta, beraz, hau da ipuinak hezkidetza ikuspuntu batetik analizatzeko sortu dugun txantiloia:

Taula 11. Ipuinak ikuspuntu hezkidetzailetik analizatzeko txantiloia

BEHATZAILEA:	**AUTOREA:**
BEHAKETA DATA:	**ARGITALETXEA:**
TITULUA:	**ARGITARATZE DATA:**

		Pertsonaia femeninoak		Pertsonaia maskulinoak		KOPURU TOTALA		Pertsonaia femeninoen %		Pertsonaia maskulinoen %	
	Kopuru totala:	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**
PRESENTZIA	▪ Pertsonaiak										
	▪ Parte hartzeak										
PROTAGONISMOA	▪ Protagonista nagusia										
	▪ Izen propioa du										
	▪ Elkarrizketa edo ekintzari hasiera ematen dio										
ROLA	▪ Rol pasiboa du										
	▪ Rol aktiboa du										
	▪ Menpekoa edo bigarren mailakoa										
	▪ Botereduna edo liderra										
	▪ Gizartean positibo baloratzen da										
	▪ Gizartean negatibo baloratzen da										
ESPAZIOA	▪ Publikoan agertzen da (lan ordaindua, konfort egoeratik kanpo…)										
	▪ Pribatuan agertzen da (etxean, familian, dendan, auzoan…)										

Taula 11. *Jarraipena*

		Pertsonaia femeninoak		Pertsonaia maskulinoak		KOPURU TOTALA		Pertsonaia femeninoen %		Pertsonaia maskulinoen %	
	Kopuru totala:	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**
LANBIDEA	▪ Lan ordaindua										
	▪ Etxeko lana (garbitu, lixatu, baratzan aritu…)										
	▪ Zaintza lanetan (gaixoak, adineko pertsonak, haurrak…)										
	▪ Lan intelektualetan										
	▪ Ardura profesionala du										
	▪ Tradizioan bere generoari ez dagokion lanetan										
AISIALDIA	▪ Kirola edo mugimenduko ariketak egiten										
	▪ Jarduera lasaietan (irakurketa, mahai-jolasak…)										
	▪ Aisialdiko ekintzetan agertzen diren helduak										

OHARRAK:

Behin sortutako taula aurkeztu dugula eta datuen bilketa eta interpretazioarekin hasi baino lehen, komenigarria da zerbait zehaztea. Adierazle guztiak edonork ulertzeko prestatuta dauden arren, bada zalantza sortzen ahal duen adierazle bat; rol atalaren barruan sartzen dugun *gizartean positibo baloratzen da* adierazlea, hain zuzen ere. Honen inguruan, alabaina beharrezkoa da zehaztapen txiki bat egitea. Aztertutako pertsonaia gizartean positibo baloratzen dela baieztatzeko, honek zeozer positiboa eskaini behar dio istorioari; hots, partehartzeak aktiboa eta positiboa izan behar du. Baliteke rol erabat pasiboa duen, baina gizarteak positibo balora dezakeen pertsonaia bat egotea. Kasu horretan, ordea, ez da ez *gizartean positibo baloratzen da* ezta *gizartean negatibo baloratzen da* adierazleen barruan kontenplatuko.

Era berean, ikerketatik baztertu ditugun bi laginetatik (Tullet, 2015) (Carle, 2007), *Gose handiko beldarra* (Carle, 2007) ipuinean aurkitu dugun fenomenoa posible da beste zenbait ipuinetan ere errepikatzea. Beraz, analizatuko ditugun ipuinetan genero neutroko pertsonaiak agertzen badira, ez ditugu aztertutako pertsonaien barruan kontuan hartuko; hau da, genero femenino edo maskulinoa duten pertsonaiak bakarrik kontenplatuko dira behaketa-taula betetzerako orduan.

2.7. Datuen bilketa eta interpretazioa

Jarraian aurkezten dugun atal honetan, analizatutako ipuinei aplikatu dizkiegun txantiloiak agertzen dira, banan-banako azterketa plazaratuz. Jarraian, bildutako datu esanguratsuenen batez bestekoak atera eta grafiko batzuen bitartez adieraziko ditugu, ondoren garatuko dugun interpretazioa erraztearren.

2.7.1. Datuen bilketa

Taula 12. “Bihotz-bihotzetik” ipuineko datuen bilketa

BEHATZAILEA: Itziar Paternain Valencia

BEHAKETA DATA: 2016/05/16

TITULUA: “Bihotz-bihotzetik”

AUTOREA: Émile Jadoul

ARGITALETXEA: Ibaizabal

ARGITARATZE DATA: 2013

		Pertsonaia femeninoak		Pertsonaia maskulinoak		KOPURU TOTALA		Pertsonaia femeninoen %		Pertsonaia maskulinoen %	
	Kopuru totala:	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**
PRESENTZIA	▪ Pertsonaiak	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Parte hartzeak	0	0	5	10	5	10	0%	0%	100%	100%
PROTAGONISMOA	▪ Protagonista nagusia	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Izen propioa du	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Elkarrizketa edo ekintzari hasiera ematen dio	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
ROLA	▪ Rol pasiboa du	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Rol aktiboa du	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Menpekoa edo bigarren mailakoa	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Botereduna edo liderra	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Gizartean positibo baloratzen da	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Gizartean negatibo baloratzen da	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
ESPAZIOA	▪ Publikoan agertzen da (lan ordaindua, konfort egoeratik kanpo…)	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Pribatuan agertzen da (etxean, familian, dendan, auzoan…)	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%

Taula 12. *Jarraipena*

		Pertsonaia femeninoak		Pertsonaia maskulinoak		KOPURU TOTALA		Pertsonaia femeninoen %		Pertsonaia maskulinoen %	
	Kopuru totala:	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**
LANBIDEA	▪ Lan ordaindua	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Etxeko lana (garbitu, lixatu, baratzan aritu…)	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Zaintza lanetan (gaixoak, adineko pertsonak, haurrak…)	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Lan intelektualetan	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Ardura profesionala du	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Tradizioan bere generoari ez dagokion lanetan	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
AISIALDIA	▪ Kirola edo mugimenduko ariketak egiten	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Jarduera lasaietan (irakurketa, mahai-jolasak, paseoan…)	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Aisialdiko ekintzetan agertzen diren helduak	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-

OHARRAK: Katua pertsonaia maskulinoa dela argi dago, baina arrainarekin duda handiak sortu zaizkigu, ez baitu maskulinoa edo femeninoa den ezaugarri zehatzik, gure ustez. Hortaz, arraina pertsonaia neutrotzat hartu dugu.

Taula 13. “Burgik besarkada bat behar du” ipuineko datuen bilketa

BEHATZAILEA: Itziar Paternain Valencia

BEHAKETA DATA: 2016/05/16

TITULUA: “Burgik besarkada bat behar du”

AUTOREA: David Melling & Miren Agur Meabe

ARGITALETXEA: Ibaizabal

ARGITARATZE DATA: 2013

		Pertsonaia femeninoak		Pertsonaia maskulinoak		KOPURU TOTALA		Pertsonaia femeninoen %		Pertsonaia maskulinoen %	
	Kopuru totala:	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**
PRESENTZIA	▪ Pertsonaiak	1	1	4	4	5	5	20%	20%	80%	80%
	▪ Parte hartzeak	0	1	18	45	18	46	0%	2%	100%	98%
PROTAGONISMOA	▪ Protagonista nagusia	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Izen propioa du	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Elkarrizketa edo ekintzari hasiera ematen dio	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
ROLA	▪ Rol pasiboa du	1	1	3	3	4	4	25%	25%	75%	75%
	▪ Rol aktiboa du	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Menpekoa edo bigarren mailakoa	1	1	3	3	4	4	25%	25%	75%	75%
	▪ Botereduna edo liderra	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Gizartean positibo baloratzen da	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Gizartean negatibo baloratzen da	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
ESPAZIOA	▪ Publikoan agertzen da (lan ordaindua, konfort egoeratik kanpo…)	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Pribatuan agertzen da (etxean, familian, dendan, auzoan…)	1	1	1	1	2	2	50%	50%	50%	50%

Taula 13. *Jarraipena*

		Pertsonaia femeninoak		Pertsonaia maskulinoak		KOPURU TOTALA		Pertsonaia femeninoen %		Pertsonaia maskulinoen %	
	Kopuru totala:	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**
LANBIDEA	▪ Lan ordaindua	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Etxeko lana (garbitu, lixatu, baratzan aritu…)	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Zaintza lanetan (gaixoak, adineko pertsonak, haurrak…)	1	1	0	0	1	1	100%	100%	0%	0%
	▪ Lan intelektualetan	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Ardura profesionala du	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Tradizioan bere generoari ez dagokion lanetan	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
AISIALDIA	▪ Kirola edo mugimenduko ariketak egiten	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Jarduera lasaietan (irakurketa, mahai-jolasak, paseoan…)	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Aisialdiko ekintzetan agertzen diren helduak	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-

OHARRAK:

Taula 14. "Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxoa" ipuineko datuen bilketa

BEHATZAILEA: Itziar Paternain Valencia

BEHAKETA DATA: 2016/05/11

TITULUA: "Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxoa"

AUTOREA: Werner Holzwarth, Wolf Erlbruch & Koldo Izagirre

ARGITALETXEA: Kalandraka

ARGITARATZE DATA: 2011

		Pertsonaia femeninoak		Pertsonaia maskulinoak		KOPURU TOTALA		Pertsonaia femeninoen %		Pertsonaia maskulinoen %	
	Kopuru totala:	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**
PRESENTZIA	▪ Pertsonaiak	2	2	4	4	6	6	33%	33%	67%	67%
	▪ Parte hartzeak	2	2	9	26	11	28	18%	7%	82%	93%
PROTAGONISMOA	▪ Protagonista nagusia	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Izen propioa du	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Elkarrizketa edo ekintzari hasiera ematen dio	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
ROLA	▪ Rol pasiboa du	2	2	3	3	5	5	40%	40%	60%	60%
	▪ Rol aktiboa du	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Menpekoa edo bigarren mailakoa	2	2	3	3	5	5	40%	40%	60%	60%
	▪ Botereduna edo liderra	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Gizartean positibo baloratzen da	2	2	3	3	5	5	40%	40%	60%	60%
	▪ Gizartean negatibo baloratzen da	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
ESPAZIOA	▪ Publikoan agertzen da (lan ordaindua, konfort egoeratik kanpo…)	0	0	1	1	1	1	0%	0%	100%	100%
	▪ Pribatuan agertzen da (etxean, familian, dendan, auzoan…)	2	2	3	3	5	5	40%	40%	60%	60%

Taula 14. *Jarraipena*

		Pertsonaia femeninoak		Pertsonaia maskulinoak		KOPURU TOTALA		Pertsonaia femeninoen %		Pertsonaia maskulinoen %	
	Kopuru totala:	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**	**Testua**	**Irudia**
LANBIDEA	▪ Lan ordaindua	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Etxeko lana (garbitu, lixatu, baratzan aritu…)	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Zaintza lanetan (gaixoak, adineko pertsonak, haurrak…)	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Lan intelektualetan	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Ardura profesionala du	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Tradizioan bere generoari ez dagokion lanetan	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
AISIALDIA	▪ Kirola edo mugimenduko ariketak egiten	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Jarduera lasaietan (irakurketa, mahai-jolasak…)	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-
	▪ Aisialdiko ekintzetan agertzen diren helduak	0	0	0	0	0	0	-	-	-	-

OHARRAK: Sexu-genero argirik gabeko animaliak agertzen dira, beraz pertsonaia maskulino edo femeninotzat har daitezkeen pertsonaiak bakarrik hartu ditugu kontuan. Hortaz, 3 dira ipuinean *neutro* kontsideratzen ahal ditugun pertsonaiak.

Taula 15. “Caillou txakurrarekin paseoan” ipuineko datuen bilketa

BEHATZAILEA: Itziar Paternain Valencia

BEHAKETA DATA: 2016/05/11

TITULUA: “Caillou txakurrarekin paseoan

AUTOREA: Roger Harvey

ARGITALETXEA: Aizkorri

ARGITARATZE DATA: 2009

		Pertsonaia femeninoak		Pertsonaia maskulinoak		KOPURU TOTALA		Pertsonaia femeninoen %		Pertsonaia maskulinoen %	
